

“EDIZIO HONETAKO ALDAKETAK OSO BALIAGARRIAK IZAN DIRA EGIN BEHARREKO LAN GUZTIAK KOORDINATZEKO”



María Lasa - Elgoibar Ikastola | *Lehen Hezkuntza (Fisio) [1. saria]*

María Lasa Elgoibar Ikastolako “Elgokosmo” taldearen arduraduna da. Talde horrek lortu du lehen saria Lehen Hezkuntza Fisio kategorian. Irakasleak azaldu duenez, Kosmodiseako edizio honetan parte hartzea *“oso esperientzia positiboa izan da”* eta bere ikasleek oso pozik hartu dute parte Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismo Sailaren ekimenean. *“Dena gustatu zaie, gaien hautaketa, antolakuntza, plangintza eta bideoa grabatzea”*.

- Nola jaso dituzte ikasleek lortutako emaitzak?

- *Lortu duten emaitza ongi iruditu zaie, egin duten lan gogorrarekin bat datorrela uste baitute.*

- Kosmodiseako 2011-2012 edizio honetan hainbat aldaketa txertatu dira, hala nola, Grapho Planeta fasea gehitzea edo wikiei garrantzi handiagoa ematea. Zer iruditu zaizkizue berrikuntza horiek?

- Aldaketak egokiak iruditu zaizkit. Oso baliagarriak izan dira egin beharreko lan guztiak koordinatzeko.

- Zure ustez, zein balio onuragarri lor daitezke Kosmodisean parte hartzean?

- Egin beharreko lanak kideen artean banatzen laguntzen die eta, hartara, kide bakoitzaren parte-hartzea sustatu eta arau guztiak betetzen dira. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzen ikasten dute eta euren arteko harremanak indartzen dira.

- Zein alderdi da, zure ustez, Kosmodisea 2011-2012ko onena? Eta zein alderdi dira hobetu edota aldatu beharrekoak?

- Guztia ondo dagoela uste dut. Gaiak egokiak izan dira eta dena ongi antolatu da.

- Parte hartuko al duzue Kosmodiseako datorren edizioan?

- Gure ikastetxean maila batzuek hartzen dute parte Kosmodisean. Horren arabera jakingo dut parte hartuko dudan ala ez.

- Ideiak, iritziak, iradokizunak, iruzkinak, kritikak...

- Orokorrean, guztia ondo dagoela uste dut; ez nuke aldaketa handirik egingo.